

HITZARMENA.-

1996ko urtarrilaren 10eko Doako Laguntza Juridikoaren Legean eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Doako Laguntza Juridikoari buruzko 2018ko urriaren 3ko Dekretuan aurreikusitakoa betetzearren, non ezartzen baita barruti judizial bakoitzean Guardiako Txanda iraunkor bat antolatuko dela eguneko 24 orduetan abokatuak berehalako arreta pertsonala eta besterenezina eskaini eta objektiboki eta berdintasunez banatuta lanerako prest edukiko dituen, eta halaber, Doako Laguntza Juridikoaren Zerbitzuak antolatzeko eta kudeatzeko estatutu-eginkizunak betez eta horiek arautzeko ahalmena eta borondatezko izaeraz dagozkion zerrendetan atxikitzeko ahalmena Gobernu Batzordearena izanik, dagokion erroldak zerbitzu hori eskaintzea onartzen ez duen kasuetan izan ezik, Donostia, Irun, Bergara, Azpeitia, Eibar eta Tolosako barruti judizialetan Adingabeak, Atzerritarrak, Penal Euskara, Emakumearen aurkako Indarkeria, Etxe Indarkeria eta Sexu Erasoak Atxilotuari Laguntzeko zerrendetan sartzeko betebeharrei eutsiz, hauxe erabaki da:

-. Eguneko 24 orduetan erabateko prestutasuna eduki behar dela, izendatzen den egunean zerbitzu hori eskaintzeko, Txanda edozein izanik ere. Erakunde publiko nahiz pribatuetan ordutegi bati lotuta zerbitzuak eskaintzen dituzten abokatuak agiri bidez, hots, enpresaziurtagirien bidez egiaztatu beharko dute erabateko prestutasuna dutela Epaitegietan eta Auzitegietan aritzeko eta dagokion Txandan arreta eskaintzeko.

-. Guardiako zerbitzuan laguntza horiek eskaintzea, edozein Txandatan izanik ere, pertsonala da, eta **Elkargoaren** Agiri Izendunetan halaxe agertuko da, izendatutako abokatu eta laguntza hori eskaintzeko eguna adieraziko da eta Elkargoan aurkeztuko dute izapidetu dadin.

-. Trukea edo aldaketa **Salbuespeneko edo larrialdiko kasuetan bakarrik**, eta behar hainbateko aurrerapenez jakinarazi beharko zaizkio Elkargoari, gutxienez 3 egun natural lehenago, edo 5 egun lehenago tartean jaieguna, larunbata edo igandea badago, secretaria@icagi.net helbidera posta elektronikoa bidaliz; beste lankide batekin Guardia trukatzeko edo aldatzea onartuko da, baina nahitaez urteko berean, Txanda berean eta, hala egokituz gero, espezialitate berean guardia eskaintzeko izendatuta egon beharko du. Bi abokatuak Elkargoko Idazkaritzari jakinaraziko diote trukatu egin dituztela Guardiako egunak, eta hori justifikatzen duten arrazoiak emango dituzte. Abokatu batek ezingo du, inola ere, berez dagokion Txandan izendatu zaizkionak baino guardia gehiago egin. Horri begira, Guardia trukatzeko, horretarako onetsitako eskaera-inprimakia bidali beharko dute Elkargoaren Idazkaritzara, eta Hitzarmen honen parte bihurtuko da.

-. **Ukoa.** Guardiako zerbitzua egiteari ukoa adierazi dakioke arrazoi justifikatuengatik, baina ezingo da Txanda bakoitzean urte osokoan izendatutakoen % 50 gainditu gehienez. Horri begira, Guardiari uko egiteko, horretarako onetsitako eskaera-inprimakia bidali

beharko da Elkargoaren Idazkaritzara, behar hainbateko aurrerapenez, gutxienez 3 egun natural lehenago, edo tartean jaieguna badago, 5 egun lehenago.

Donostia, Irun, Bergara, Azpeitia, Tolosa eta Eibarko barruti judizialeko Atxilotuari Laguntzeko zerrendetan gehienez baimendutakoa baino kopuru handiago bati edo justifikatu gabeko bati uko egiteak Diziplinazko Espediente bat irekitzea eragin dezake, eta zehapen larria ezarriko balitz, horrekin batera Doako Laguntza Juridikoaren zerbitzuetatik baztertzea ekarriko luke (Doako Laguntza Juridikoaren Legeko 44. Artikulua).

Donostia, Irun eta Tolosa, eta Eibar, Bergara eta Azpeitiko Genero Indarkeriaren, Etxeko Indarkeriaren eta Sexu Erasoen Txandako zerrendetan gehienez baimendutakoa baino kopuru handiago bati edo justifikatu gabeko bati uko egiteak Diziplinazko Espediente bat irekitzea eragin dezake, eta zehapen larria ezarriko balitz, horrekin batera Doako Laguntza Juridikoaren zerbitzuetatik baztertzea ekarriko luke (Doako Laguntza Juridikoaren Legeko 44. Artikulua).

Penal Euskarako Txandaren Zerrendan baimendutako gehieneko kopurua baino gehiagori edo justifikatu gabeko bati uko egiteak Diziplinazko Espediente bat irekitzea eragin dezake, eta zehapen larria ezarriko balitz, horrekin batera Doako Laguntza Juridikoaren zerbitzuetatik baztertzea ekarriko luke (Doako Laguntza Juridikoaren Legeko 44. Artikulua).

Adingabeen eta Atzerritarren Zerrendetan, Zerbitzu hau eskaini beharrak ez badu urtean 2 Guardiako batez bestekoa eragiten gutxienez, ez zaio aplikatuko ukoa erabili ahal izateko ezarri den eta arestian aipatu den muga hori, eta zerrendaren sistemak duen berezko dinamikaren ondorioz espezialitate horietan Guardia 1 baino gehiago izendatu ahal izan zaizkien abokatuak bakarrik egongo dira horretatik salbuetsita. Justifikatu gabeko ukoa aplikatzen bazaio, Diziplinazko Espediente bat irekitzea eragin dezake horrek, eta zehapen larria ezarriko balitz, horrekin batera Doako Laguntza Juridikoaren zerbitzuetatik baztertzea ekarriko luke (Doako Laguntza Juridikoaren Legeko 44. Artikulua).

Lehenago hitzartutakoaren ondorioetarako –trukea edo aldaketa eta ukoa–, aste barruko eta asteburuko Zerbitzuetarako osatzen diren zerrendetan izendatutakoetatik Txanda bakoitzeko izendapen guztiak hartuko dira kontuan.

.- Txandan aldi baterako baja-eskaera onartuko da horren edozein modalitatetan, dela amatasunagatik, aitasunagatik, jaiotzagatik, legezko adopzioagatik edo gaixotasun luze edo larriagatik, baita arrazoi baliokideengatik ere, baina dena den, Gobernu Batzordeak aurrez onartu beharko du eskaera hori.

Amatasunagatik hartzen den bajak Gizarte Segurantzako bajaren iraupen berbera edukiko du, RETA Sistemaren duen Erregimen Orokorrekoa izan nahiz beste edozein mutualitate alternatiboetako izan.

Aitatasunagatik eta jaiotzagatik hartzen den baja legez aurreikusitako gehieneko iraupeneko izango da, jaiotzen denetik kontatzen hasita, eta hitzez hitzeko jaiotza-agiriaren bidez egiaztatuko da.

Adopzioagatik denean, legeak aurreikusitako gehieneko iraupena izango du bajak, adopzioa eratzen den unetik kontatzen hasita, eta dagokion agiriaren bidez egiaztatuko da hori.

Amatasunagatik edo jaiotzagatik hartzen diren baja-aldi horietan baliorik gabe geratuko dira izendatu ahal izan zaizkion Txandak.

Gaixotasun larri edo luzeagatik direnean, aldi baterako baja-eskaera horrek Gizarte Segurantzako Lan Ezgaitasunagatik bajaren iraupen berbera izango du dagokion Txandan, erregimen orokorrean egon nahiz RETA sistemaren edo RETAren alternatiba diren edozein mutualitatetan egon, baina dena den, egiaztatu egin beharko da hori.

Epealdi horretan baliorik gabe geratuko dira izendatu ahal izan zaizkion Txandak.

-. **Ordezkoa izendatzea** Uko egindako eta onartutako Guardiako Laguntzak, justifikatu gabeak eta araututako baja-arrazoiengatik egin direnak, hurrenkera kronologiko zorrotzaren arabera beteko dira, eta barruti judizial bakoitzari dagokion eta data bereko Hitzarmenaren bidez sortu den **larrialdiko zerrendan** sartutako abokatu etako bat izendatuko da, Atxilotuari Laguntzeko, probintzia-lurraldean Adingabeei, Atzerritarrei eta Euskarari Laguntzeko, Donostia, Tolosa eta Irungo barruti judizialetarako eta Azpeitia, Bergara eta Eibarko barruti judizialetarako.

Txanden eta espezialitateen ohiko zerrendetako eta dagozkien larrialdiko zerrendetako partaide diren abokatu guztiek beren posta elektronikoa, telefono finkoa eta mugikorra adieraziko dizkiote Elkargoari, secretaria@icagi.net posta elektronikora mezua bidaliz, Txanda eta espezialitate horietako edozeinetan Guardiako Zerbitzuak eskatzen duen azkartasunez topatu ahal izan daitezten.

Hitzarmen hori argitu, osatu edo, hala egokituz gero, aldatu egin daiteke, horren beharra ikusiz gero.

Hitzarmen hau dihardutenen errolda osatzen duten abokatu guztiei jakinarazi behar zaie.

Hitzarmen hau 2020ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

GUARDIARI UKO EGITEKO ESKAERA

Abokatu jn./and.: **AZALTZEN DU:**

Jakinarazten dut ezingo dudala jarraian aipatzen den Egun/Txandan izendatutako guardia eskaini: _____ / _____

Arrazoi honengatik:

- Gaixotasuna
- Oporrak
- Beste batzuk (arrazoiak zehaztu)

_____ -an , 201 ko _____aren an

Abokatuaren sinadura

ICAGIra bidali, posta elektronikoa: secretaria@icagi.net

Ukoa. Guardiako zerbitzua egiteari ukoa adierazi dakioko arrazoi justifikatuengatik, baina ezingo da Txanda bakoitzean urte osokoan izendatutako % 50 gaintu gehienez. Dagokion Txandan baimendutako gehieneko kopurua baino gehiagori uko egiteak edo ez justifikatzeak Diziplinazko Espediente bat irekitzea eragin dezake, eta zehapen larria ezarriko balitz, horrekin batera Doako Laguntza Juridikoaren zerbitzuetatik baztertzea ekarriko luke (Doako Laguntza Juridikoaren Legeko 44. Artikulua). 2019ko azaroaren 19ko Gobernu Batzordearen erabakia.

GUARDIA TRUKATZEKO ESKAERA

(1). Abokatu jn./and.:

(2). Abokatu jn./and.:

AZALTZEN DUTE:

Izendatu zaizkien guardiaak elkarrekin trukatu nahi dituztela, eta beraz, ondorengo eran antolatuta geratuko lirateke:

Txanda _____

Eguna/ _____

Abokatua _____

Eguna/ _____

Abokatua _____

_____ an, 201_ ko _____ aren an

(1) Abokatuaren sinadura
sinadura

(2) Abokatuaren

ICAGIra bidali, posta elektronikoa: secretaria@icagi.net

Trukea edo aldaketa: **Salbuespenezko edo larrialdiko kasuetan bakarrik**, eta behar hainbateko aurrerapenez jakinarazi beharko zaizkio Elkargoari, gutxienez 3 egun natural lehenago, edo 5 egun lehenago tartean jaieguna, larunbata edo igandea badago, secretaria@icagi.net helbidera posta elektronikoa bidaliz; beste lankide batekin Guardia trukatzea edo aldatzea onartuko da, baina nahitaez urteko berean, Txanda berean eta, hala egokituz gero, espezialitate berean guardia eskaintzeko izendatuta egon beharko du. Bi abokatuek Elkargoko Idazkaritzari jakinaraziko diote trukatu egin dituztela Guardiako egunak, eta hori justifikatzen duten arrazoiak emango dituzte. Abokatu batek ezingo du, inola ere, berez dagokion Txandan izendatu zaizkionak baino guardia gehiago egin. 2019ko azaroaren 19ko Gobernu Batzordearen erabakia.